


# Balio Proposamena

Gure produktua, Flexiphone deiturikoa, mugikorra heltzeko balio duen gailu edo sistema bat da. Bere barruan mugikorra kargatzeko kargadore bat txertatuta dauka. Makil flexible baten bitartez lurretik mugikorreraino joaten da mugikorra heltzeko. Makilaren behekaldean, euskarri bat dago makila ez erortzeko lurrera. Euskarritik kablea ateratzen da entxufe batean kargatzeko mobila. Makilaren beste aldean mobila heltzeko gailu bat dago erregulablea dena mugikorraren tamainera moldatzeko. Gailu horretatik mobilera konektatzen den kablearen zatia ateratzen da mobila kargatzeko.



Flexiphonen bidez, komodidade handia lortuko duzu ohean edo sofan zaudenenan eta ez duzu esfuertzorik egin beharko mobila eusteko, gainera bitartean mobila kargatuz doa eta hau dena oso prezio txiki eta ulergarri batean.

Flexiphone baita ere, erraza da eskuratzen, izan ere, interneten baita supermerkatuetan eskura daiteke. Flexiphonen erabilera ere oso erraza da, ez du inolako zailtasunik. Gainera pertsonalizagarria da, zure gustuko kolorekoa izan dezakezu.